



## **USURBILGO UDALA**

### **Iragarkia**

#### **2014/2015 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia**

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 21eko bilkuran, besteren artean 2014/2015an aisialdi begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

#### **ERREKURTSOAK**

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtoa aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.
- Bestela, erabaki hau berraztertze eskatu ordez, edo berraztertze errekurtoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du, errekurtoa tartekatatu zuen datatik kontatzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkezteko.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da eta ekainaren 16tik ekainaren 27rako epea (biak barne) ematen da interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Usurbilen, 2015eko maiatzaren 21ean—Mertxe Aizpurua Arzallus, Alkatea**





# **DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK**

## **2014/15 IKASTURTEAN AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT**

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horrexegatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2014-2015 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituzten biztanleei bekak emateko.

### **1. Artikulua. Xedea**

Deialdiaren xedea ondorengo hau da: 2014-2015 ikasturtean zehar Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duen usurbildar orori diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

### **2. Artikulua. Onuradunak**

Diru-laguntza hauen onuradun izango dira: 2014-2015 ikasturtean Aisialdiko begirale edo aisialdiko zuzendari ikastaroak egin dituzten usurbildarrak.

Onuradun izateko baldintza hauek bete behar dira:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.

Araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako diru-laguntza.

### **3. Artikulua. Diruz lagun daitezkeen ikastaroak**

Deialdi honen bidez 2014ko uztailetik 2015eko ekaina bitartean egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Ikastaro hauek beti ere Eusko Jaurlaritzak homologatuak izan behar dute. Diruz laguntzen diren ikastaroak dira: Aisialdiko Begirale ikastaroa edo Aisialdiko Zuzendari ikastaroa.



#### **4. Artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa**

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

- a) Diru-laguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).
- b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- c) Matrikularen ordainagiria.
- d) Ikastaroan matrikulatu izanaren agiria
- e) Atal teorikoa gainditu izanaren agiria (Aisialdi Eskolak egin)
- f) Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako diru-laguntzei buruzko zinpeko aitortpena. (II. edo III. Eranskina)
- g) IV. Eranskina: ikastaroaren ezaugarriak adierazten dituen.

Usurbildarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Udal Erregistroaren bidez. Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie eskatutako diru-laguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

Titulua eskuratzen denean begirale edo zuzendari titulua eskuratu izanaren agiriren kopia udalari helarazi behar zaio.

#### **5. Artikulua. Epeak**

Diru-laguntzaren eskaera, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, epe honen barruan egingo da: 2015eko ekainaren 15etik ekainaren 26ra bitartean (biak barne)

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera.

#### **6. Artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa**

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2015

Hauk izango dira banatuko diren diru-laguntzak:

- Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 €)
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50. (gehienez ere 170 €)

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da



gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

## **7. Artikulua. Prozedura**

Soziokultura arloko teknikariak diru-laguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Soziokultura Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Diru-laguntzen Batzorde Orokorra ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko GAOn iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du diru-laguntzei buruzko behin betiko ebazpena eta interesatuari jakinaraziko zaio, gehienez ere, hiruhilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta. Aipatutako epea igaro ondoren ebazpena jaso ezean, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe. Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

## **8. Artikulua. Diru-laguntzen Batzorde Orokorra**

Diru-laguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

- Alkatea
- Diru-laguntzak banatzen dituen batzordeko lehendakaria eta teknikaria
- Udal idazkaria
- Udal kontuhartzailea

Diru-laguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

- Udal diru-laguntzak banatzeko irizpideak bateratzea
- Diru-laguntzen legezketasuna bermatzea
- Diru-laguntza bikoizketak ekiditea

## **9. Artikulua. Baloratzeko irizpideak**

Hauek izango dira:

- Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 €)
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50. (gehienez ere 170 €)

Aipatutako portzentaje hau gutxitu egin daiteke aurkezten diren eskarien arabera.

Beti ere, oinarri hauen 2. artikulua ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.



## **10 Artikulua. Diru-laguntza ordaintzea**

Diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Interesdunak 2017eko uztailaren 30a baino lehenago titulua eskuratu izanaren agiria ekarri behar du udalera. Titulua udalera ekartzen ez bada, udalari jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko zaio.

## **11. Artikulua. Betebeharrak**

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituztenek, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- b) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- c) Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan–, diru-laguntza eskaini duen organoari aldaketa horren jakinaren gainean jartzea.
- d) Usurbilgo Udalaren aurrean dauden betebeharretan egunera egotea.

## **12. artikulua.-Araudi osagarria**

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.



## I. Eranskina

**DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA**

**2015**

### DATUAK

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Herria:		PK:
Telefonoa:	E-maila:	NAN:

Neure izenean edo .....reanean.

### ADIERAZTEN DUT

2014/15 ikasturtean:

- Aisialdiko begirale ikastaroa egin dut.
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa egin dut

Hori dela eta, Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 21eko Bilkuran onetsitako 2014/15 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarrietan jasotakoari eta Usurbilgo Udalaren Diru-laguntzen Ordenantzak dioenari jarraituz:

### ESKATZEN DUT

Dagokidan diru-laguntza ematea.

### ERANSTEN DITUDAN AGIRIAK

- NAN fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- Ikastaroan matrikulatu izanaren agiria
- Atal teorikoa gainditu izanaren agiria (Aisialdi Eskolak egina)
- Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jasotzen den edo ez adierazten den agiria. (II. edo III. Eranskina)
- IV. Eranskina, ikastaroari buruzko informazioa jasotzen duena.
- Beka ordaintzeko kontua (20 digitu): \_\_\_\_\_

Usurbil, 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_a

Sinadura



## II. Eranskina

### USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRU-LAGUNTZARIK JASO EZ IZANAREN ZINPEKO AITORPENA

#### DATUAK

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Herria:	PK:	
Telefonoa:	E-maila:	NAN:

#### ZINPEAN AITORTZEN DUT

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egiteko ez dudala Usurbilgo Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso 2014/15ean.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_a

Sinadura





### III. Eranskina

## USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRU-LAGUNTZARIK JASO IZANAREN ZINPEKO AITORPENA

#### DATUAK

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Herria:		PK:
Telefonoa:	E-maila:	NAN:

#### ZINPEAN AITORTZEN DUT

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egiteko Usurbilgo Udalez kanpoko diru-laguntza hau jaso dut 2014/15ean.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_a

Sinadura



## IV. Eranskina

### IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

Egin dudan ikastaroak ezaugarri hauek ditu:

Ikastaroaren izena:	
Aisialdi Eskola:	Ordu-kopurua:
Hasiera data:	Amaiera data:
Ikastaroaren hizkuntza:	Ordaindutako matrikula:

Usurbil, 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_a

Sinadura